

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

2024an euskara ikasteko beken deialdia egiten duen Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 785633.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/-es/convocatoria/785633>).

Lehenengoa. Onuradunak

2023-2024 ikasturtean Amurriko erroldatutako pertsonak, 16 urte beteak dituztenak, eta Amurriko Udaleko langileak.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen helburua da Amurriko herritarrek euskara ikastea sustatzeko norgehiagoka bidezko dirulaguntzak arautzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Behin betiko onetsi dira, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera; dirulaguntzak arautzen dituen arauaren 31. oinarria, 2024ko apirilaren 10eko ALHAOn argitaratua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 23.000,00 eurekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskerak aurkezteko epea

2024ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrio, 2024ko irailaren 16a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA